

**ICASIQUIZUNAC:  
FRAI BARTOLOME ETA LOGRERIA**

Ezaguna da eta goraipatua, gainera, Frai Bartolome Santa Teresa fraide karmeldarrak bizkaieraren berbalauko moldea sortzeko aldian izan zuen eragina.

Hainbat gai erabili zituen Frai Bartolomek bere idazkietan eta eurotan guztiotan, ez txikerrenak, teologia moralarekin zeriakusia zutenak. Izan ere, horren obra nagusiaren haria Jaungoikoaren legeko hamar aginduetako azalpena dugu, azalpen zabal eta mamitsua, hain zuzen ere.

Azalpen lana izanda, alderdi ugariak ditu langintza horrek. Sarritan, bistan da topo egiten duela horrek, bapatean eta ezinbestean, Frai Bartolomeren garaiko erakusbideekin. Gure karmeldarra, ibili ere, ez zen ibili garai hartan ohiko ziren teoria zein irakaspen arruntetatik zeharo aldentuta. Aitzitik, beldurrik gabe baieztatu daiteke Fr. Bartolomeren ildo nagusiak zehatz-mehatz egokitzen zaizkiela Eliza katolikoaren orduko pentsamolde kanonikoenei.

Egia esan, Fr. Bartolomeren *Icasiquizunac* gai ugarietara zabaltzen dira eta gai horietako bakoitzean ikuspuntu anitzak izan daitezke erabilgarri, hustuketa baten ildotik bideratuta joanez gero.

Aukeran ditugunak, zeresanik ez, nahitaez aukeratu behar. Gurean, beste behin ere, nabarmen teologiaren eta Zuzen-

bidearen arteko bidegurutzea. Ekonomiarena ere, urrun samarrik ez. Hartara jarri eta aztergai datorkigu, Elizaren zazpigarren aginduaren inguruan, logreriaren debekua.

*Logreria* bera berba eztabaidagarria. Gazteleratik mailegatua, Fr. Bartolomek *logreria* hobesten du gaur egungo *lukurreria* edo *lukurrero* direlakoan aurrean. Gertatze hori, edonola ere, beste zenbait autoreterengan ere agerikoa da. Halaxe, XIX. mendeko lau sermoilari ( Frai Bartolome - *logreria*-, Astarloa -*lucrerija*-, Agirre Asteasukoa -*usura*- eta Gerriko-*usura* edo *logreria*-) batera alderatu eta lauongan izango dugu eskura *logreria* zein *usura* gaztelerazko hitzak.

Hitza bera, esan legez, eztabaidatsu gerta daiteke. Iturrien arabera, eta XVIII. mende hondarreko eta XIX. mende hasierako euskal hiztegiak lekuko dugula, jakinbiderik zabalena Fr. Pedro Antonio de Añibarrok eman digu: **usura**: *c. lucurra, lucreria, irabazgoia, usura, logreria*; *b. cuticia*<sup>1</sup>. Beraz, Añibarroren ustez, *logreria* horrek, euskararen esparruan behinik behin, erkideko izaera lortu du, bigarren maila batean lortu badu ere, Harrieten hiztegiak, berriz, *lukburança* (usure), *lukburaria* (avare) *lukburaria* (usureur), *lukburarigoa* (avarice)<sup>2</sup> zerrendatzen ditu. Pierre D'Urteren iritziz, *lukura, lukurario, lukurariokeria, lukurariotasun*<sup>3</sup>.

Batean zein bestean, atzean dagoena latinezko *lucrum* dugu, zalantzarik gabe.

Izenak izen eta izendazioak izendazio, Frai Bartolome Santa Teresak zazpigarren ikaskizunaren barruko edukia plazaratzeko, hiru kapitulu erabiltzen ditu. Berorien artean, II. kapitulua dugu logreriarri buruzko testurik zuzenekoena, bertan jartzen

<sup>1</sup> AÑIBARRO, FR. P. A. DE: *Voces Bascongadas*, Bilbao, Ediciones de la Caja de Ahorros Vizcaina, 169 or.

<sup>2</sup> LAKARRA, J.A.: *Harrieten Gramatikako biztegiak*, ASJU Gehiagarriak, XVIII, Donostia, 1995, Eranskina. 166.or.

<sup>3</sup> URKIZU, P.: *Pierre D'Urteren biztegia. Londres 1715*, I, Gasteiz, Mundaiz, 1989, 291. or.

baitira logreriaren kontzeptua, motak eta ondorioak. Baita ere, bide beretik joanda, *aurraz* emandako zerbaiten ordainean zertxobait gehiago jasotzea noiz den zilegi eta noiz, ostera, kaltegarri eta pekatu larria eta astuna.

Tartean, ez ahaztu, hamaikatxo aipamen, autore klasiko, Zuzenbide, Ekonomia eta abarreko kontu, lerro artean irakur-garri eta ikasgai.

Ikaskizun horien irakurketa arretatsua egin ahal izateko, hona hemen fraide karmeldarraren egitasmoa:

—Lehendabizikoz, lapurreta zer den zehaztea.

—Bigarrenez, ea beste inori dirua edo gauzak *aurraz* emate-aren truk zerbait gehiago eska edo har daitekeen.

—Hirugarrenez ere, badira modu horretan ematean pekatu egitetik salbuespen direnak. Delako logreria hori zein kasutan den legezko eta zeinetan ez azaltzen dihardu markinarrak, luze eta zabal.

### 1. Lapurreta zer den

Hona hemen Fr. Bartolomeren lehenengo galdera eta horren erantzuna, Pouget autore frantsesaren hitzak bere erara tajututa:

—Pouget: *“P. ¿Cómo incurren ordinariamente en el burto los ricos?”*

*R. 1. Oprimiendo á los pobres”<sup>4</sup>.*

—Fr. Bartolome: *“I. Itanduten dau Pouget jaquitun Pamaubac: ¿Ia cetan gueijen lapurretan eguin daroien: aberatsac, ia euquijan ondochu vizi dirianac? Ta erantzuten dau berac: Leleengo: pobriac larregui cansaubagaz”<sup>5</sup>.*

Nor zen Pouget? Izatez, XVII–XVIII. gizaldi bitarteko idazle frantsesa dugu berori. Teologo (1665–1723) eta *Oratoire* dela-

<sup>4</sup> POUGET, F.A.: *Instrucciones generales en forma de catecismo*, Madril, Imprenta Real, 1784, 292. or.

<sup>5</sup> SANTA TERESA, FR. BARTOLOME: *Jaungoicoaren amar aguin dubeetaco azque-neco bosteen icasiquizumac*, II. zatija, Iruñea, Rada alargunaren liburuguillan, 1817, 107. orr.

koan partaide izan zen. Jansenista taldearen tartekotzak, hala ere, ez zion batere indarra kendu liburugintzan aritzeko. Horretara, 1702. urtean Parisen argitaratu zuen *Le Catéchisme de Montpellier*. Lan hori da, izan ere, *Institutiones catholice* izendazioarekin hizkuntza askotara itzuldu (italiera, ingelesa, gaztelera eta latina) eta, dudarik gabe, gure markinarrak esku-  
ra izan zuena.

Aldera izan dugun argitaraldia 1784. urtean eginiko gaztele-  
razko itzulpena da. Argi dago, beraz, Fr. Bartolomeren *Icasquizunac* ikusita eta horren argitaratze data aintzat hartuta, hur-hurrekotzat jo ditzakegula bi obra horiek.

## 2. Logreria

Gure karmeldarrak bigarren lapurretara motan sartu du, ikusi dugun legez, logreriaren pekatua. Horra hor, besterik gabe, logreriaren zehaztapena, Pougeten eskutik etorrita:

—Pouget: "*P. ¿Cómo incurren ordinariamente en el hurto los ricos?*

*R. 2. prestando á usura.*"<sup>6</sup>.

—Fr. Bartolome: "*Aberatsen bigarren lapurretac dino icen-tau dan eracusliac, diriala: Edo diruba, edo laboria, edo soineco gueija, edo artubaz castetan dirian gauzac, aurraz inori emon deutezalaco, emon daveen baino, gueijago escatubagaz, ta quendubagaz*"<sup>7</sup>.

Logreriaren pekatuari alderdi guztietatik deritzo gorrotogari Frai Bartolomeren ikuspuntuak. Idazleak, maila eta izate guztietako legeak, oro dira logreriaren etsai eta desegile.

Argumentuak, haatik, azalpen ortodoxoenetik datozkigu karmeldarraren testuan. Pougeten antzera ere, markinarrak lau lege maila bereizten ditu logreriaren aurkako arrazoietan.

<sup>6</sup> POUGET, F.A.: *Instrucciones generales en forma de catecismo*, Madril, Imprenta Real, 1784, 292. or.

<sup>7</sup> SANTA TERESA, FR. BARTOLOME: *Jaungoicoaren amar aguindubetaco azque-neco bosteen icasquizunac*, II. zatija, Iruñea, Rada alargunaren liburuguillan, 1817, 108. or.

## 2.1. *Lege naturala*

Arlo horretan, Pougeten eskutik, hiru autore klasiko aipatzen ditu Frai Bartolomek:

*“Guiza aldi guztietaco eracuslac, ta ainchinaco gentilac, Platonec, Aristotelec, Plutarcoc, ta beste Jaungoicuaren ezaubera bagaco ascoc bere, eragotzi gura izan even logrerijaco irabatzi tristia, ta desondrauba”<sup>8</sup>.*

Zehatzago Pougetek:

*“P. ¿Luego la usura es prohibida?”*

*R. Es prohibida por todas las Leyes: por la Ley Natural, por la Ley Divina, por la Ley Eclesiástica y por las Leyes Civiles”<sup>9</sup>.*

Azpinarratu, bide beretik ere, Pougetek galde-erantzun horren azpian ematen duen oinoharra. Bertan, Frai Bartolomek erabilitako aipuez beste, osterantzekoak ere badira, jakinmin handikoak, gainera, legelarien gorabeheretan. Zuzen-zuzena da teologo frantsesak apropos egiten duen Domat legelariaren aipua eta gomendioa<sup>10</sup>. Izan ere, horren *Les lois civiles dans leur ordre naturel* (1694) liburuak berebiziko pisu eta garrantzia izan zuen zuzenbidearen jakintzagaietan. Nolanahi ere, Frai Bartolomek arreta zabalagoa erakusten du Jainkoaren legearen esparrurako, beste horretarako baino.

## 2.2. *Jainkoaren legea*

Fr. Bartolomek, lehen esan legez, logreriaren kontrako autu klasikoak egiten ditu. Itun zahar eta berriko testugintzan ari da

<sup>8</sup> SANTA TERESA, FR. BARTOLOME: *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco azque-neco bosteen icasiquizunac*, II. zatija, Iruñea, Rada alargunaren liburuguillan, 1817, 109. or.

<sup>9</sup> POUGET, F.A.: *Instrucciones generales en forma de catecismo*, Madrid, Imprenta Real, 1784, 292. or.

<sup>10</sup> *Por la Ley natural*. Lee la prueba de esto en Platon lib. 5. de las Leyes. Aristoteles lib. I. de los Políticos cap. 7. Plutarco opusculo sobre la usura. Lee tambien el lib. de las Leyes Civiles en su orden natural por Mr. Domat lib. I. tit. 6. Esta Obra es admirable, y deberia ser leida no solo por los Jueces, sino tambien por los Sacerdotes, que han de decidir los casos de conciencia.

eta autore gehientsuen lerrokadak barra-barra alderatzen ditu. Alderaketak ere, euskaraz egiten ditu:

Deuteronomioa XXIII: "*Ez deutzazu ceure lagunari, edo anaiari emongo ez diruba, ez laboria, ez beste gauzaric logrerijan*"<sup>11</sup>.

Salmoak XIV: "*¿Nor sartuco da Ceruban? Bere diruba, edo gaurcia logrerijan emon ez davena*"<sup>12</sup>.

Ezequiel XVIII: "*Logrerijan ezer emon ez davena, ta emon daven baino, gueijago atcera artuten ez davena, justuba da, ta vizicoda Ceruban: vita vivet*"<sup>13</sup>.

Pougetek aipatu besterik ez ditu egiten aurreko horiek. Ez, ordea, testu horiek oso-osorik eman. Fr. Bartolomek, aldiz, aipamen zehatzak egiten ditu, euskarazko testu eta guzti. Ohar bedi euskarazko itzulpenik ez duela fraideak aldean izango, Itun zaharrekoarena behinik behin. Badirudi, beraz, latinetik zuzenean ibili zela gure fraidea, testuok euskaraz ematerakoan.

Badira, hala ere, itzulpen joera-premia horretan, bestelako azalkizunak Frai Bartolomeren baitan. Har dezagun, Jainkoaren legetik abiatuta, *Lucas* ebanjelariaren Itun Berriko aipamena (6,35), hainbat liburutan logrieriaren aurkako oinarriztat hartua izan dena.

Honetara ematen du Fr. Bartolomek:

*"Emon eguijozu lagunari, edo proximuari aurraz, emon deutzazun baino, gueijago atcera artuteuco uste bagaric"*<sup>14</sup>.

<sup>11</sup> SANTA TERESA, FR. BARTOLOME: *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco azque-neco bosteen icasiquizunac*, II. zatija, Iruñea, Rada alargunaren liburuguillan, 1817, 109 or.

<sup>12</sup> SANTA TERESA, FR. BARTOLOME: *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco azque-neco bosteen icasiquizunac*, II. zatija, Iruñea, Rada alargunaren liburuguillan, 1817, 109 or.

<sup>13</sup> SANTA TERESA, FR. BARTOLOME: *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco azque-neco bosteen icasiquizunac*, II. zatija, Iruñea, Rada alargunaren liburuguillan, 1817, 109 or.

<sup>14</sup> SANTA TERESA, FR. BARTOLOME: *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco azque-neco bosteen icasiquizunac*, II. zatija, Iruñea, Rada alargunaren liburuguillan, 1817, 109-110. orr.

Itun berriko aipamen hori euskaratzerakoan, hizkera bide beretik baino, esan dezakegu hari beretsutik datozkigula, karmeldarrekkin batera, XIX. mendean jardun zuten bestelako euskal idazleek ere. Horren erakusle, hurrenez hurren, Astarloa, Agirre Asteasukoa zein Gerriko abadeak, gai moraletan eta besteak beste, logreriaren aurkako borrokan izkiriatzale eta erakusle apartak.

Astarloa: *"prestadu eguizube, emoten dozubena baño gujaguen icboromen, edo esperanza бага"*<sup>15</sup>.

Agirre Asteasukoa: *"Epetan gauza ematen dezuenean eman ezazue gueyagoren uste gabe, esaten digu Jesusec"*<sup>16</sup>.

Gerriko: *"on eguizue eta presta ezazue, ecercho ere gueyago esperatu baque"*<sup>17</sup>.

Latinezko testua, berak ohi duenez, Agirre Asteasukoak liburratua: *Mutuuum date, nihil inde sperantes*<sup>18</sup>.

Azalpen lanean jarrita, Pougetek Itun zahar eta berriko testuak Elizaren autoreekin batera jartzen ditu, ageri eta argitsu.

### 2.3. Eliza eta errege jaunen legeak

Oinoharretan Pouget luze dabilkigu aurreko bi horietan erroa duten zioak zerrendatzerakoan. Laburragoa da karmeldararen ahalegina. Edozelan ere, Frai Bartolomek ez ditu horiek alboratzen eta ber-bertatik dio:

<sup>15</sup> ASTARLOA, P.: *Urteco Domeca Gustifetarako icasbidecuac III Zatiya. VII. Verbalদিয়া*, Bilbo, Eusebio Larumbe Vizcaïco Señorijoco moldatzaillienian, 1816, 171–172. orr.

<sup>16</sup> AGIRRE J.B.: *Jaungoicoaren legueco amar aguinteen ganean eracusalদিac*, bigarren liburua, Tolosa, Andres Gorosabelen moldeteguian, 1850, 188. or.

<sup>17</sup> GUERRICO, J.I.: *Cristau doctrina guziaren esplicacioaren sayaquera*, bigarren liburuchua edo tomoa, Tolosa, Imprenta mendizabal, 1858, 276. or.

<sup>18</sup> AGIRRE ASTEASUKOA: *Jaungoicoaren legueco amar aguinteen ganean eracusalদিac*, bigarren liburua, Tolosa, Andres Gorosabelen moldeteguian, 1850, 188. or.

*"Eleisiaren batzaarrac, eta gurtsuac, ta Erregue Jaunen le-  
guiac guztiac era batera diadar eguiten davee logrerija deson-  
draubaten contra. Ta eragozten davee arimaco, ta gorputceco  
pena andijen beian"<sup>19</sup>.*

Fr. Bartolomek badaki gauzak plazaratzen eta katekesi lana du helburu. Horretara doa eta adibideak berehalakoan jartzen ditu, halako ulertze erraza eta arina izan dezan haren entzuleak, logreria noiz eta nola ematen den, ahalik eta egokien asmatzeko.

Irakurri, bestela, haren hitzak:

*"Logreru guztiac lotsatu ditezan, (lotsatutecuac badira)  
iminico deusut, neure escubetati igarotaco contu bat, lelen-  
goti azquenera curen pirmiagaz sillututa daguana.  
Onetarico guizon batec emon eutsazan aldizca bost ogueico  
beste preminaco guizon bati. Bost ogueicuen alderaco, artu  
zituban logrerubac zatica, lelengo plazuti asita bi milla, ta  
oguei errial. Lelengo ogueicua emon eutsaneti bost garren ur-  
tian, batu cirian contubac eguitera. Contu areetan bost  
ogueico utsac galti, artuben gainera, logrerubac arteco  
eguin eutsan bestiari iru milla zazpireun, ta laroguei errial.  
Bost ogueico gaz bost urte baino guichiaguan, ostu zituban  
logrerubac irureun, ta berrogueta iru ducac, ta lau errial, ta  
bost ogueicua osoric. Bijac cirian nequezariac. Ara emen  
logreruben mesedia"<sup>20</sup>.*

### 3. Salbuespenak

Logreriaren aurka Elizak ezarrirako debekua eta gebena erabatekoa ote zen galde dezakegu gure aldetik. Erantzuna, jakina, Elizaren doktrinatik ekarri behar eta hor, bistan da, sal-

<sup>19</sup> SANTA TERESA, FR. BARTOLOME: *Jaungoicoaren amar aguindubeeaco azque-  
neco bosteen icasiquizunac*, II. zatija, Iruñea, Rada alargunaren liburuguilla-  
an, 1817, 110. or.

<sup>20</sup> SANTA TERESA, FR. BARTOLOME: *Jaungoicoaren amar aguindubeeaco azque-  
neco bosteen icasiquizunac*, II. zatija, Iruñea, Rada alargunaren liburuguilla-  
an, 1817, 110-111. orr.



buespenak onargari, batez ere, hiru kasuotan: *lucrum cesans*, *damnum emergens* eta *aurraz* emandako oro galtzeko arrisku ganorazkoa.

Frai Bartolomek, ostera ere, azalpen lanean jarri bere burua eta hiru gai jorratzen ditu, tankerarik zuzenekoenez:

3.1. "*Jauna, nic ezdot aimbeste eruaten*"<sup>21</sup> da lehen aitzakia. Zeharo gaitzetsia da fraidearen aburuz jokamolde hau:

*"Bada, nai mesede andija eguin ceuntsala, nai chiquija eguin ceuntsala. Nai justicijak jan daguijola guztia, nai ez dajola. Nai berac esquini deutsula, nai ceuc escatu deutzazala, emon deutzazunaren gainera, aurrax prestetia gaiti, artuten dozuna, ostuba da, lapurretia da"*<sup>22</sup>

3.2. "*Baina, jauna, dino beste batec, menturaz ez deust pagauco. Ta, inori emonagaz, guztia galduteco arriscuban jarten nas. Edo cobrau ezinda, ibili biarco dot*"<sup>23</sup>.

Hona hemen, arriskuaren doktrina ageria. Frai Bartolomeren erantzunmodua, berak esango lukeen moduan, sikusikuan: "*Bada ez eguijozu emon. Ez emotia pecatu dan, edo ez, esango deutzubee compesoriac. Baina, aurrax icbaanian emotera ezquero, emon biar deutzazu; gueijago artute bagaric*"<sup>24</sup>.

<sup>21</sup> SANTA TERESA, FR. BARTOLOME: *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco azque-neco bosteen icasiquizunac*, II. zatija, Iruñea, Rada alargunaren liburuguillan, 1817, 111. or.

<sup>22</sup> SANTA TERESA, FR. BARTOLOME: *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco azque-neco bosteen icasiquizunac*, II. zatija, Iruñea, Rada alargunaren liburuguillan, 1817, 111. or.

<sup>23</sup> SANTA TERESA, FR. BARTOLOME: *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco azque-neco bosteen icasiquizunac*, II. zatija, Iruñea, Rada alargunaren liburuguillan, 1817, 112. or.

<sup>24</sup> SANTA TERESA, FR. BARTOLOME: *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco azque-neco bosteen icasiquizunac*, II. zatija, Iruñea, Rada alargunaren liburuguillan, 1817, 112. or.

3.3. *"Baina, Jauna, neuri calle eguiten jatala, emon neutsan. ta au gaiti cerbait gueijago eruan leguijala, esaten davee, dino beste batec"*<sup>25</sup>.

Alor honetan, Fr. Bartolomek euskaratu ditu, gaur egunean ere, kontratuen nondik norakoak zehazterakoan erabilgarri diren termino juridikoak:

*"Irabatz biar neuquiana, ez irabaztia: lucro cesante: Ta, galduco ez nevana, galdutia: damno emergente"*<sup>26</sup>.

Horiek dira salbuespen bakarrak, ematen dena baino gehiago hartu ahal izateko. Kaltea da horien sustraia. Ez ahaztu, idazle karmeldarraren aburuz, horretarako kalteak *jakina, ziertuba eta zucena* behar duela izan.

Kalte da horren arrazoia; ez, ordea, *aurraz* ematea:

*"Ez, aurraz emotia gaiti. Ez, eguin deutsan mesedia gaiti. Ez, alan emonac galduteco, berez daucan arriscuba gaiti. Ez, atcera cobretiac berez dacarren cer nac, eguina gaiti. Ez bada zucen, ta eguijaz, illgo daniel leguez, daucan caltia gaiti"*<sup>27</sup>.

#### 4. Labur zurrean

Logreriaren azalpenean, halako laburbiltze batera iritsi gaitzke Frai Bartolomeren idazkietan:

4.1. Frai Bartolomek doktrinaren aldetik estu-estutik jarraitzen deutso orduko autoreen ortodoxiari. Horretara, logreriaren debekua da nagusi haren testuetan, debeku horren betidaniko oinarriak estu-estu erabiltzen dituela.

<sup>25</sup> SANTA TERESA, FR. BARTOLOME: *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco azque-neco bosteen icasiquizunac*, II. zatija, Iruñea, Rada alargunaren liburuguillan, 1817, 113. or.

<sup>26</sup> SANTA TERESA, FR. BARTOLOME: *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco azque-neco bosteen icasiquizunac*, II. zatija, Iruñea, Rada alargunaren liburuguillan, 1817, 115. or.

<sup>27</sup> SANTA TERESA, FR. BARTOLOME: *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco azque-neco bosteen icasiquizunac*, II. zatija, Iruñea, Rada alargunaren liburuguillan, 1817, 115. or.

4.2. Frai Bartolomek aintzindari eta eragile du Pouget frantses idazlearen testua. Bistan denez, Pougeten testua itzuli baino, egokitu egiten du markinarrak. Egokitze lan horretan Frai Bartolomek, gure ustez behintzat, pisu gehiago ematen dio Itun zaharreko eta berriko aipamen egiteari, bestelako oinarriei baino. Esan gabe doa azalpen modu horretan zordun dela Frai Bartolome, beti legez, bere barruan daukan kezka horrexena, hau da, herri xeheari Elizaren doktrina erakustearrena.

Helburu katekistikoak dira Fr. Bartolomeren pentsamolde eta eginbideetan dabiltzanak. Hortaz, Fr. Bartolomek Pougeten moduko galde-erantzunen sistema maiztua baino, interpelazio zuzena egiten dio irakurleari eta teknika horretaz baliatzen da, logrerriaren alorrean Elizaren doktrina barreiatzeko.

4.3. Barreiatze lan horretan, Frai Bartolome behartuta dago hainbat kontzeptu euskaraz ematera. Gogora ditzagun, azkenez bada ere, logrerriaren barruan, teologia moral, Zuzenbide, filosofia nahiz kristau irakaspenak direla bitarteko, eta horietan guztietan jardun beharra daukala fraide karmeldarrak.

Hitz batez esateko, gaiaren indarrez, Frai Bartolomek, XVIII-XIX. mende bitarte horretan, sekulako lana egin zigun halako autuetan herri xeheari (eta zergatik ez, euskaldun orori) sakoneko ideiak euskaraz eta modu argi batean azaltzeko.

Etena baino, karmeldarraren lanak segida luzea ezagutuko du XIX-XX. gizaldiotan. Soka berekoak izango ditugu, zalan-tzarik gabe, lehen esandako Astarloa, Agirre Asteasukoa edota Gerriko modukoak. Horien guztien arteko erkaketak egiteko abagunea ere noizbait bilatu behar eta oraingoz bederen, hurrengo baterako utzi behar, euskal klasikoetan gaiaz eta hizkuntzaz zer den erakusgarri eta zer erabilgarri tajurik egokie-nean plazaratu ahal izateko.

*Andres Urrutia.*